

### Funtsezko jarduerak

Gure enpresak google eskeintzen duen zerbitzu baten bidez, aurretiaz aukeratutako iragarkiak jarriko ditugu gure aplikazioan. Erabiltzaileak apunteetan sartu nahi badute iragarki labur bat ikusi beharko dute, honela sortutako diruaren zati bat geuk jasoko dugu eta sarrera hauek gure erakundearen azpiegiturak mantentzeko erabiliko dira.



Kobratutako diruaren beste zatia eduki sortzaileei ordainduko diegu. Produktua hauek ekoiztuko dute eta bezeroek produktu hori kontsumituko dute, iragarki bat ikusi ondoren.

Gure plataforman sartu eta batera maila aukeratu beharko duzu, bertan maila horretako ikasgai guztiak agertuko dira. Ikasgaia aukeratutakoan gaika banatuta egongo da, eta azkenik gai bakoitzaren barruan laburpenak, apunteak, ebatzitako ariketak, eskemak eta abar, egongo dira.



Aplikazioak funtzionatzeko zerbitzari batzuk eratuko dugu, hauek sortzeko ordenagailu batzuk erosi beharko ditugu, ordenagailu hauek x € baliko dute eta hauek mantentzeko x € ordainduko dugu hilero. Zerbitzari hauetan gordeko dira aplikaziora igotako dokumentu, irudi eta bideo guztiak.